

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izango da martxoaren 21a. Horren kariaz, Basauriko Udaleko talde politikoek, **Kulturartekotasun Mahaia osatzen duten elkarteekin batera, tratu- eta aukera-berdintasunerako, eta diskriminaziorik ezarako beren konpromisoa berresten dute**, honako adierazpen instituzional honen bidez:

«Milioika pertsonak egunero pairatzen duten hondamendiaz, eta, bereziki, etorkinek, errefuxiatuek eta beste gutxiengo etnikoek jasandako intolerantzia arrazistaren eta horren ondoriozko indarkeriaren aurka borrokatzeko konpromiso kolektiboaz hausnartzera garamatza, beste urte batez, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna.

Bereziki kezkarria iruditzen zaigu alderdi politiko xenofoboaren diskurtsoen gorakada: humanitate-falta naturalizatzen dute —gehien-gehienetan, nazionalismo oldarkor eta baztertzailen, gorrotoaren arrazoibidearen eta jarduketa zehatzen laguntzarekin—, eta **oinarrizko giza eskubideak bortxatzen dituzte**. Pertsonen sentimenduekin jolasten dute: pobrezia, eta lan- zein etxebizitza faltaren beldurra baliatzen dute, etorkinenganako beldurra eta haiek baztertzeko joera sustatzeko.

Berriro dago boladan giza eskubide eta oinarritzko askatasunenganako mespretxua —zehazkiago, igarotze-, pentsamendu-, kontzientzia-, erlijio-askatasuna edota edozein sinesmen izateko askatasuna dira kaltetuenak—. Doktrina diferentzialak edota nagusitasunezkoak lagunduta dator mespretxu hori, gainera. **Eta horrek guztiak zeharo arduratzen gaitu.**

Gaur egun, **askotariko itxurak, zuzenak edo sotilak, hartzen dituzte arrazakeriak eta xenofobiak**. Aurreiritziez elikatzen dira; informazio faltsu eta moralki gaitzesgarriez; gizakiak bereizi, gaitzetsi eta behartzen dituzten jarduketa bidegabeez.

Gu guztiok, administrazioek, enpresa pribatuek, gizarte-mugimenduek eta herritarrek, **esku hartu beharra daukagu**. Izan ere, aurrean dugun erronka handienetakoa bat da (gure herrian ere) **haziz doan kultura anitzeko errealitatea kudeatzea**.

Berretsiz egiten dugu **Bizikidetzaren eta Aniztasun Plana 2016-2020**an hartutako konpromisoa: pertsona ororentzako tratu- eta aukera-berdintasunaren alde lan egitea. Gizarte bidezkoagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko ezinbesteko baldintza baita hori.

Dena dela, 2019an honako konpromiso hauek hartzen ditu Basauriko Udalak:

- Datozen hileotan biziko ditugun hauteskundeetan alderdiek **ez erabiltzea etorkinak, errefuxiatuak eta gutxiengo etnikoak** elkarren aurkako arma gisa.
- **Salatzea** alderdi politikoek etorkin, errefuxiatu edota gutxiengo etnikoak (bereziki, herrian bizi direnak) erabiltzea **komunikabideetan, aurreiritziekin, modu alarmistan eta nahita hori bilatuta**.
- Jarraipena ematea **bizikidetzako eta aniztasuna kudeatzeko udal politikei**, eta politika horiek hlbetzea, hauteskundearen emaitzak edozein izanda ere.

- Eskumena duten erakunde guztiei eskatzen diegu bete dezatela nazioarteko babesari eta asilo-eskubideari dagokionez hartutako konpromisoa; eta, gure mugen barruan ere, giza eskubideak babes ditzatela.

Basaurin argi daukagu **ez garela** beste jatorrietako pertsonen edota gutxiengo etnikoen **bizikide izatearen beldur**.

Irtenbidearen parte da immigrazioa, ez arazoa. Gizartea aberatsago eta anitzago egiten du.

Dударик gabe, aniztasunean bizitzera gonbidatzen dugu, «**INOR EZ BAITA INOR BAINO GUTXIAGO**».

2019/03/21